

BERBARO ELKARTEAREN BOLETINA

1. ALEA

1993 azaroak 22

Gazte Taldea

Negua ganean izanik eta Udaldia iadanik ahaztuta, hemen gaude Berbaroko gazte taldekook berriro ere zerbituetan hasteko prest.

Ondo baino hobeto ezagutzen ditugu Berbarok urtean zehar eta arlo ezberdinetan burutzen dituen ekintzak: bertso afariak, ipuin-lehiaketak, hitzaldiak, literatur aretoa...

Asko gara elkarte honen inguruan eta asmo berean mugitzen garen jende mota: zahar, gazte, ume eta bestelakoak. Oso zaila da benetan, denen nahiak eta gogoak betetzea, nahiz eta apurka-apurka honetan ihardun.

Hutsuneetariko bat gazte jendea

dugu. Horregatik, eta gazteok euskararen alde zerbitu esateko badaukagunez, denon artean taldetxo bat eratu eta lanean hastea da gure

asmoa. Irteerak, tailerrak, ikastaroak,... gogoko ditugun ekintzak antolatu eta euskaraz burutzeko aukera eskaintzea. Laguntalde aparta antola

genezake denon artean eta honez gero zerbituetan hasteko irrikitan baldin bazaude, zatoz Berbaroko bulegoetara, han aurkituko gaituzue eta!



**neurritzko
gaia
zortziko
handian**


Berbarok taberna bat jartzea oraindik ez da seguru nolanahi ere laster batean horixe espero dugu ahaleginetan hasiak gaude asmo eta zurrumurru berri gehiago izandakoan abisatuko dizugu.

Badago beste zertxobai ere hau jakingo duzue ba urtero-urtero garai hauetan txosna ere montatzen da gonbidatuta zaudete baita handik ere pasatzera gabonetako freskura artean salda bero bat hartzera.

Taberna eta txosnaren gauzak aipatu dira orduan halere ez da dena amaitu albistearen kontuan badago beste nobedade bat baita Berbarok barruan gazte talde bat sortuko dela denbora gutxin buruan.

Berbarorekin bat egitea pentsatu baduzu inoiz gura baduzu gaur bertan eta bestela bihar, edonoz gu itxaroten egongo gara zu itxaroteko gogoz zabal-zabalik duzu atea ta beldurrik gabe zatoz.

Denok dakigunez, gure lehendakaria Estatu Batuetara joan zaigu. Urtebetez izango da bertan klaseak ematen eta, bide batez, ingelesa hobetzen eta aberasten. Baina bizitza honetan lan egitea baino zertxobait gehiago badago, eta Pedro Pablo Arrindari aukera txikiena ematen zaigonean aprobe-txatu egiten du edonon Berbaroren propaganda egiteko



Eta esanak esan, horra hor lehendakaria, Iñigo Zandonarekin batera, New Yorkeko biztanleei euskararen eta Berbaroren barri ematen.

BERBARO ELKARTEAREN BOLETINA

Publizitatearen neurketa

Berbaro Elkarteak "publizitatea ere euskaraz" izeneko kanpaina martxan jarri zuen, publizitate munduan euskarak duen presentzia aztertu ahal izateko.

Orain arte egindako lanaren ondorioz lortutako emaitzak aipagarriak dira oso. Argi eta garbi esan daiteke euskarak ia presentziarik ez duela publizitatean.

Aztertutako publizitatearen ehuneko 80a erdera hutsean egin da dago. Euskara hutsean, ordea,



ez dago publizitaterik. Gainerako %20 horretan euskaraz zerbait agertzen bada ere, gehinetan presentzia hori testimoniala baino ez


da: izenburuak edo hizki handiak. Azkenik, euskara eta erdera neurri berean erabiltzen dituen publizitatea benetan urria da.

Durangoko euskaldun kopurua (%55) kontutan hartuz gero, argi dago publizitate munduan enpresek ez dutela euskara behar beste erabiltzen. Egoera hori aldatzeko, Berbaro prest dago eskura dituen baliabide guztiak publizitategileen zein enpresen zerbitzura jartzeko.

Kantu liburua

Gure herrian kantuak eta, orokorrean, musikak duen garrantziaz jabetuz, Berbarok euskal kantu liburu bat kaleratuko du. Beste herri batzuetan plazaratu dira dagoeneko horrelako liburuak, eta izan duten arrakasta benetan txalogarria izan da.

Liburuak bi atal izango ditu: batetik, euskal kantu ezagunenen bilduma egingo da (Lertxundi, Laboa, Lete, Artola) eta, bestetik hor nonbait gogoan ditugun Durangaldeko kantu batzuk jasoko dira.



Azpimarratu beharra dago, liburuak lantzen eta ikerketa lana egiten Durangoko orfeoian diharduen jendea dabilela. Beraz, liburuaren kalitatea ziurtatuta dago.

Euskal kantu liburuak abenduan aurkeztuko da, euskal liburu eta diska azokan.

Barruko antolaketa

Berbaro elkarteak Zuzendaritza Batzordearen zereginak aipatu genituen lehenengo boletinean. Oraingoan ordea kultura azpitaldea azalduko dugu. Azpitalde honek euskaraz bizi nahi duen edonorentzako ekintzak antolatzen ditu, Bertso afariak, jaialdiak, hitzaldiak, eta abar. Kultur ekintzen antolaketa sei gazte adoretsuren esku dago. Zabalik dago noski, idea berridun eta lanerako gogoak duen edozein euskalzalerentzako. Batzarrak ez dira beti ordu berean izaten. Beraz, parte hartzea nahi duenak Berbaroko telefonora deitzea baino ez dauka. Telefono zenbakia 6201918.

BERBARO ELKARTEAREN BOLETINA

Durangoko jaiak

San Fausto jaietan ere, jakinadenez, Berbarok kalean izan da. Durangar eta ingurukoei zer edan eta zer jan eskaintzeaz gain, lagunarte atsegina dastatzeko aukera ezin hobe eskaini diegu. Eta jaiegun guztietan txosnak izan duen arrakasta kontutan hartuta, argi dago, bete betean asmatu dugula. Gauza bera esan daiteke urriaren 17an Berbarok antolatu-

tako bertso jaialdiari buruz. Punta puntako bertsolariek beti erakarri dute jendea eta, noski, gurea ez da salbuespena izan. Bestalde, jaietako errifaren zozketa txosnan bertan egin zen eta dagoeneko irabazleek jaso dituzte beren sariak. Azkenik, Berbaroko kamiseta oraindik erosi ez duenak aukera du berau eskuratzeko. Horretarako Berbarora deitzea besterik ez duzue.



Normalkuntza plangintza

Berbaro Elkartek euskara normaltzeko plangintza ateratzeko ahaleginetan ari da. Boletinaren lehengo zenbakian ideia hau azaldu genizuen eta oraingo honetan proiektua zertan den azaltzera gatozkizue. Plana idatzia dago, euskara kontseiluko lehendakaria den

Andoni Mujikak eta Udaleko itzultzailea den Juan Antonio Atutxa, Berbarokoak biak, idatzita. Irailaren 24an kultura kontseiluan aurkeztu zen.

Beraz udalaren esku dago, gu bitartean zain berri onak entzuteko gogoarekin.

Gure eraginez

Aurreko boletinean adierazi genizuen, Berbarok, Durangaldeko aisialdiko beste zenbait taldekin batera, UDALEKU EUSKALDUNAK antolatzeari eta gauzatzeari ekin zion sei hilabetetan zehar. Udaleku hau uztaileko lehenengo hamabostaldian ospatu zen.

B eta D ereduak haurrei zuzendutako udaleku honek izugarritzko arrakasta izan zuen. Hasieran uste baino haur gehiagok eman zuten izena eta horregatik, hain zuzen, ez zen guztientzako tokirik egon. Edozelan ere ume, guraso zein antolatzaileak oso pozik gelditu ziren lortutako emaitzaz.

Hamabostaldi osoan era askotako ekintzak burutu genituen (eskulanak, antzerkia, jolasak,...), irteerak (ondartzara, mendira, inguruko herrietara,...), jaialdiak eta egun bereziak (San Fermin eguna, mozorro eguna,...).

Emaitzak, benetan pozgarriak izan ziren. Ia datorren urtean ere Durangoko haurrek aisialdia Euskaraz bizi eta ondo baino hobeto igaro ahal izateko aukera izaten duten.

Herrietako Euskera Elkartearen jardunaldiak

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak 10 urte bete ditu aurten. AED aitzindari izan da herri mailan gure eguneroko bizitzako alor guztietara euskara zabaltzeko ahaleginetan. Urteurrena ospatzeko antolatu dituzten eginkizunen artean, urriaren 30 eta 31 bitartean herrietako euskara elkartei buruzko jardunaldiak ditugu.

Jardunaldietan iparraldeko zein hegoaldeko erakunde eta antolakunde desberdinek hartu dute parte eta horien artean Berbaro

ere izan da, bai entzule modura, baita zuzeneko parte hartzaile modura ere.

Jardunaldietan, besteak beste, honako ondorio hauek atera ziren: euskararen normalkuntza lortzeko, administrazioaz kanpoko antolakundeek duten garrantziaren onarpena. Halaber, nazio linguistikoak euskara normalizatzeko duen erantzunkizuna artikulatzeko gune izango litzatekeen erakunde baten beharra. NORMALKUNTZAINDIA izeneko

antolakunde honek euskararen statusaren hobekuntza zuzendu beharko luke, euskararen beharriak abiapuntutzat eta erizpide soziolinguistikoak gidaritzat izanik.

Baina, zalantzarik gabe, jardunaldietako ondorioz erakargarriena euskararen inguruan lan egiten duten maila guztietako erakundeak eta antolakundeek elkarrekin lan egiteko beharra ikusi dutela izan da. Zorionik beroena AEDri egiten ari den lan aberats eta baliagarriatik.

Gabonetako loteria

Diru iturri desberdinak bilatu nahian, aurten ere Berbarok Gabonetako loteria kaleratu du. Bi zenbaki erosi dira zortea tentatu nahian. Beraz, aienerik egon ez dadin, berandu baino lehen eros

ditzagun boleto batzuk. Bestalde, jendea behar da zenbakiak saltzeko, hori dela eta prest dagoenak dei dezala Berbaroko 6201918 telefono zenbakira.

Liburu Azokan ere txosna

Euskal Liburu eta Diska Azoka dela eta, Berbarok txosna bat zabalduko du azken urteotan egin izan duen modura. Lan gehiegirik ematen ez duen arren, holaetan jende premina handia egoten da, txandak bete ahal iza-

teko. Bertan lan egiteko prest bazau, deitu Berbaroko 6201918 telefono zenbakira, ahal dela, abenduaren 2a baino lehen. Aurtengo Azoka abenduaren 3, 4, 5 eta 6an zehar izango da.

Egizu bazkide zure ingurukoren bat eta bialdu 267 postakutxara.

Izena: _____ 1. abizena: _____
2. abizena: _____ Jaioeteguna: _____
Herriak: _____
Herria: _____ Tfnoa: _____
Lana: _____ Laneko Tfnoa: _____
Bankua: _____ Kontu zenbakia: _____